

TXOSTENA | MEMORIA | MEMOIRE 2024



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

TXOSTENA | MEMORIA | MEMOIRE 2024



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

www.eusko-ikaskuntza.eus

EUSKO IKASKUNTZA

Memoria 2023 / Eusko Ikaskuntza. – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2025. – 148 or. : ir. ; 23 cm.

ISSN: 0213-8662

1. Eusko Ikaskuntza I. Tit.

06 Eusko Ikaskuntza

Erakunde hauen babesarekin: Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza eta Zientzia eta Berrikuntza Ministeritza.



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

EUSKO IKASKUNTZA - SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS - SOCIÉTÉ D'ÉTUDES BASQUES - BASQUE STUDIES SOCIETY

Bergara, 19. 20005 Donostia

www.eusko-ikaskuntza.eus e-mail: ei-sev@eusko-ikaskuntza.eus

Lege Gordailua: SS – 0512/04

Fotokonposaketa: Belén Moreno

Inprimaketa: Fasprint (Donostia)

Aurkibidea

Índice

Index

05

Aurkezpena

06

Sarrera

08

Eusko Ikaskuntzaren
jarduera zientifikoa

22

Eusko Ikaskuntzaren
XIX. Kongresua

30

Beste proiektu
eta ekimen batzuk

34

Sariak

36

Zabalkundea

40

Erakundea

48

Datu ekonomikoak

53

Presentación

54

Introducción

56

Actividad científica
de Eusko Ikaskuntza

70

XIX Congreso de
Eusko Ikaskuntza

78

Otros proyectos
e iniciativas

82

Premios

84

Difusión

88

La Institución

96

Datos económicos

101

Présentation

102

Introduction

104

L'activité scientifique
d'Eusko Ikaskuntza

118

XIX^e Congrès
d'Études Basques

126

Autres projets
et initiatives

130

Prix

132

Diffusion

136

L'Institution

144

Données économiques

| 2024 TXOSTENA





Eusko Ikaskuntzaren ehun urtetik gorako historian, laburbiltzeko eta hausnartzeko uneak dira kongresuak eta, mugarri gisa, etapak eta helburuak egituratzen dituzte, garai bakoitzak planteatzen dizkigun eskakizunetara egokituta.

Ildo horretan, aurten egin den Eusko Ikaskuntzaren XIX. Kongresuak aukera eman du 2018tik aurrera —hau da, «Mendeurreneko Kongresu» ahaztezinaren ondoren— egindako lanaren balantzea egiteko, bai eta ziklo berri bati aurre egiteko abiada hartzeko ere, ondo zehaztutako ibilbide-orria eskuan izanda. Uste sendoa dugu ahaleginak partekatuz eta Euskal Herriko errealitate eta sentsibilitate guztiak integratuz eraikitzen dela etorkizuna, eta, horregatik, adimen kolektiboa mobilizatzen jarraituko dugu, gero eta bidezkoagoa, kultuagoa eta integratuagoa izango den gizarte honen kohesioaren eta garapenaren alde.

Eusko Ikaskuntzaren beste kongresu batean, 1948koan, espazioan eta denboran luzatuko zen ekimena bultzatu zuen erakundeak: urtero abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzea. Haren lehenengo edizioaren 75. urteurrena dela eta, berretsi egin dugu gaur egun ere indarrean jarraitzen duela bost kontinenteetan sakabanatutako euskal komunitateek orduan adierazi zuten borondatea: euskara, erabat normalizatua, dagokion lekuan kokatzea gure gizartean eta munduan.

Txosten honetan laburbildu den ekitaldian, zenbait lan-programak euren ondorioak atera dituzte, eta XIX. Kongresuan aurkeztu dira; beste batzuk behar bezala ari dira garatzen, eta batzuek lehen urratsak eman dituzte. Ehunka pertsona, kolektibo eta erakunde inplikatu dira programa horietan, eta proposamen aurreratuak lantzen lagundu dute funtsezko hainbat gai buruz; besteak beste, identitateari, hezkuntzari, kulturari, hizkuntzari, gizarte-ongizateari edo lurralde-orekari buruz.

Eusko Ikaskuntzak bere presentzia soziala zabaldu du 2024an, akordio eta hitzarmen berrien bidez eta komunikabide tradizioaletako eta sare sozialetako komunikazio-lanaren bidez, urtero ematen ditugun sariak eskaintzen diguten erakusleiko bikaina ahaztu gabe. Duen balio sinboliko eta praktikoagatik, aipatzekoa da Sozietateak azkenean baduela egoitza nagusia jabetzan, Donostiako hirigunean, bere 106 urteko bizitzan lehenbiziko aldiz.

Amaitzeko, bazkideei eskerrak eman nahi dizkiet Kontseilu Errektoreari emandako laguntzagatik. Beste lau urtez izango naiz Kontseiluko buru, azaroko Ohiz Kanpoko Batzarraren aginduz. Eskerrik asko.

Ana Urkiza Ibaibarriaga
Lehendakaria



SARRERA

Eusko Ikaskuntza 1918an sortu zen, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako aldundien ekimenez. Erakunde zientifiko-kultural gisa aitortuta dago euskal eremu osoan, eta harreman zuzena du bere inguruko administrazio guztiekin. Euskal Herriko gizarteak eta lurraldeek planteatutako etorkizuneko erronkei erantzun bateratzaile eta berritzaileak eskaintzeko sortu zen, lurralde-kohesioa lortzea helburutzat hartuta.

Mandatu hori erabat indarrean dago oraindik, gaur egungo gizarte moderno eta konplexuaren koordenatu berrietara egokituta, jakina. Eusko Ikaskuntzak hausnarketa partekatua sustatzen du, eta, horretarako, ezagutza eta adimen kolektiboa aktibatzen ditu. Horretarako, gizartearen ahalduntzen du, aipatutako erronkei erantzun globalak eta integratzaileak eskaintzeko, kontuan hartuta lurraldeen berezitasuna eta aniztasuna, genero-ikuspuntua eta independentzia ideologikoa. Herritar, erakunde, eragile eta adituen artean zubi-lana eginez, gure gizartearen etorkizuna irudikatzen du, eta aurrea hartzen dio. Hortik aurrera, errealitate berriak behatzeko, ikertzeko, esperimintatzeko

eta gizarteratzeko programak lantzen ditu; erronkak identifikatzen ditu; **beharrizan sozialak aztertzen ditu**, eta, horrekin guztiarekin, **proposamen berritzaile eta aurreratua** prestatzen ditu.

2018an (erakundearen mendeurrenaren urtean, hain zuzen) bukatutako gogoeta kolektibo sakonaren emaitza izan zen Liburu Zuria erreferentziatzat hartuta, Euskal Komunitate Globalarentzat oinarritzkoak diren eta funtsezko balioa duten alderdiei buruzko proiektuak ari da bultzatzen Eusko Ikaskuntza, eta, aldi berean, eztabaidak sustatzen, zeinetan euskal gizartearen askotarikoa eta plurala, mintzatzen baita.

Bere zereginetan sakontzen jarraitzeko, 2024ko Kudeaketa Planak bost helburu estrategiko finkatu zituen, eta horiek lortzea izan du ardatz aurtengo ekitaldian:

1. Agenda publikoan eragitea, Eusko Ikaskuntza lurraldetasun-ikuspegia duen erreferentzia-gune gisa kokatuz: proiektuak gauzatzea eta XIX. Kongresua antolatzea.



2. Eusko Ikaskuntza gizarteari ezagutarazi eta hurbiltzea: komunikazioa eta dibulgazioa.
3. Finantzatzeko bideak sendotu eta zabaltzea.
4. Lantaldea antolatu eta garatzea.
5. Gogoeta-prozesua eta agenda berria egitea.

Oinarrizko printzipioak

- Diziplinartekotasuna
- Lurraldean arteko zubia
- Herritarrekiko lotura
- Belaunaldiartekotasuna
- Erakundeen arteko lankidetzatza
- Euskararen erabilera bermatzea
- Genero-ikuspegia
- Independentzia ideologikoa
- Nazioartekotasuna

Eusko Ikaskuntzaren ezaugarriak

Bere ezaugarri eta berezitasunengatik, Eusko Ikaskuntzak berezko lekua du ekosistema zientifiko eta kulturalan, eta posizio horretatik laguntzen du gure etorkizuna eraikitzen:

- Gure herriaren garapenerako **estrategikoak diren gaiak** lantzen ditu; horretarako, agenda propioa zehaztu eta kudeatzen du.
- **Kalitatezko egitasmoak** garatzen ditu; lortzen dituen emaitzek eta egiten dituen proposamenek oinarri akademiko-zientifiko sendo eta kontrastatuak dituzte.
- **Ikerketa-metodologia aurreratuak** erabiltzen ditu, etorkizuna prestatzeko edota trantsizioak kudeatzeko beren-beregi prestatutakoak.
- Helburutzat du egitasmoak prestatzeko fase guztiak **modu integratuan** antolatzea: **behaketa + ikerketa + esperimendazioa + sozializazioa**.
- Ikerketa eta proposamenak interes komunera bideratzen ditu, sozializazioaren edo prestakuntzaren bidez, **hartaileak ahalduentzeko**.
- **Herri-ikuspegia da haren jarduketaren ardatz**. Erreferentzia da euskal lurralde guztiak hartzen dituzten eta integrazioa helburu duten egitasmo orokorretarako.
- **Harreman-sare zabala** eta parte hartzeko eredu irekia ditu indargune nagusi.
- **Lankidetzan aritzeko gaitasuna** du, eta ikuspegi plurala bermatzen du.

EUSKO IKASKUNTZAREN JARDUERA ZIENTIFIKOA

Eusko Ikaskuntzaren jarduera zientifikoak euskal gizartearen beharrian sozialei erantzuten die, eta ikuspegi orokorra duten epe luzerako politika publikoak bideratzen laguntzen du. Horretarako, gizarte zibilaren adimen kolektiboa aktibatzen du, iraultza teknologiko globalaren testuinguruan etorkizun posible eta desiragarriak bistaratuz.

XXI. mendeko errealitateak eta beharrianak kontuan hartuta, Eusko Ikaskuntzak egokitu eta eguneratu egiten du 1918an bere sorrera eragin zuen misioa; hau da, **garapen soziala, ekonomikoa eta kulturala sustatzeko tresna estrategikoak eta irismen handikoak eskaintzea**. Erakunde publikoekin, eragile politiko eta sozialekin eta herritarrekin lankidetzat estua ezarrita, **gizarte-berrikuntza** oinarritzko zutabe du gizartearen, herritarren eta lurraldeen ongizatea eta haien ahalmen guztien garapen jasangarria lortzeko.

Bere jarduera zientifikoak oinarri hauek ditu, labur azalduta:

- **Pentsamendu ireki**, plural eta independenterako **guneak sortzen** ditu euskal gizartearen testuinguruan eta eremu globalean.
- Behaketatik abiatuta, **ezagutza aplikatuaren azterketa, ikerketa eta sustapena bultzatzen ditu**.
- Gizartearen erronka estrategikoen inguruko analisia eta hausnarketa sustatzen ditu eta **erantzun berritzaileak eskaini**. Euskal Herria gizartetik abiatuta eta gizartearekin bat eginda eraldatzea ahalbidetzen du.
- Gizarte-sarearen antolaketa katalizatzen du, **kohesioa sustatzeko**.
- Berdintasun-irizpideekin dihardu eta **belaunaldien arteko** lana sustatzen du.
- Elkarlanean aritzen da erakunde eta elkarteekin **jakintza-sareak** sortzeko.
- Hainbat komunikazio- eta zabalkunde-euskarri erabiltzen ditu, **sortutako ezagutzaren sozializazioa** bermatzeko.



Hauek dira Euskal Komunitate Globalaren zerbitzura jartzen dituen lanerako programen ardatzak: irtenbideak aztertzea, proposamenak prestatzea eta interes komuneko ekimenak sustatzea, hainbat ikuspegi eta planteamendu aintzat hartuta eta partaidetza zabal eta plurala bermatuta.

Arlo estrategiko bakoitzean kalitate zientifikoa eta bikaintasuna bermatzen ditu Ikerketa Egitasmo Batzordeak (IEBk), zeina kudeaketaz eta dinamizazioaz arduratzen diren barne-langileek eta nork bere arloan ibilbide ezaguna duten kanpoko profesionalak osatzen duten. IEbN parte hartzen dute, halaber, Eusko Ikaskuntzaren zuzendariak eta Kontseilu Errektoreko hiru ordezkariak.

Bestalde, eta unibertsitateek 2021ean sinatutako lankidetzak-hitzarmenaren barruan, ikerketa bultzatzeko eta laguntzeko programaren lehen edizioa ezarri zen, gradu 4. eta 5. mailako, masterretako eta doktoregoetako ikasleen ikasketa-, prospektiba- eta ikerketa-lanak sustatzeko.

Proiektu estrategikoak

Hamar lan-programa jorratu ditu gure erakundeak 2024an:

- Euskal nortasuna(k) XXI. mendera begira: 2050 helburu
- GizarteLAB: komunitate dibergente eta eraldatzaileak
- Lurralde oreka: Herri Txikien Akademia
- Transis Lab. Landa-eremuetarako bizitza-luzeari buruzko Living Lab
- Hezkuntza-sistema: etorkizuna elkarrekin eraikitzen
- Irakaslea aldaketa-eragile gisa
- Eskubide kulturalak: parte-hartze eta gobernantzarako politikak
- Nafarren arteko balio partekatuak euskararen inguruan
- Ituntzen: zaintza-arloko itunak ehuntzen
- Euskal Herria, lurralde bizia, muga-espazioa, klima-larrialdiaren erronkaren aurrean

Proiektu horiek Nazio Batuen esparruan, eta, zehazkiago, 2030 Agendan ezarritako Garapen Jasangarrirako Helburuei (GJH) erantzuten saiatzen dira; horrela, herritar, erakunde, elkarte eta instituzioen arteko konpromiso globala bilatzen dute.

Proiektu estrategikoak datuetan

Proiektuekin
lotutako ekitaldiak
40

9.489

pertsonen
harreman-sare
zuzena

Partaideak

1.221

803



415



3



Proiektu estrategikoak irudietan



Eusko Ikaskuntzaren jarduera zientifikoa



Euskal nortasuna(k) XXI. mendera begira: 2050 helburu

2022an martxan jarri genuen ikerketa-proiektu honen helburu nagusia Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako Foru Komunitateko eta Ipar Euskal Herriko herritarren nortasun plural, kohesio-gile eta inklusibo berrituaren eraikuntzarako oinarriak proposatzea da.

Bigarren mailako helburuak dira euskal nortasun-elementuei eta izaerari buruzko diskurtsoak ezagutzea; euskal nortasuna bultzatzen, sortzen edo indartzen duten egungo eragileak identifikatzea; euskal nortasunaren aldaketa aztertzea; euskal nortasun plural, kohesio-gile eta inklusiboa eraikitzeko etorkizunera begira ditugun erronkak ezagutzea; eta erronka horiei erantzuteko proposamenak egitea.

Helburu horien lorpena hiru fasetan garatu da: lehenengoan gaiaren inguruan antzemandako joerak identifikatu eta aztertu ziren; bigarrenan, ezagutzan sakontzeaz gain, etorkizunerako proposamenak egin ziren; eta hirugarrenean, landutako emaitzak eta proposamenak kontrastatu dira. Azkenik, laugarren fase batean, lan honen emaitzak aurkeztu dira.

2024ko jarduerak

2024ko urtariletik uztaile bitartean, bildutako etorkizuneko proposamenen eta proiektuaren emaitzen kontrastea egin da.

Etorkizuneko proposamenak alderatzeko, bi ekintza-ildo garatu dira: aurreko ekintzetan (narrazioak, elkarrizketa sakonak eta mintegiak) parte hartu duten pertsonekin kontrastatzeko delphi bat; eta, kontrasterako eztabaida taldeak eta elkarrizketa sakonak gazteekin (aldez aurretik, apirilean, Nafarroako gazteekin eztabaida taldea garatu zen).

Emaitzen kontrasteari dagokionez: alde batetik, diasporan bizi diren pertsonekin kontrastatu da diasporari buruz jasotako informazioa eta landutako proposamenak; eta, bestetik, identitate-gaietan adituak diren pertsonekin kontrastatu dira proiektuaren emaitzak. Bildutako informazioa aberastu duten ekintza horietan pertsona berriek parte hartu dute.

Kontraste ekintza horien ondoren, azken txostena egin da, eta 2024ko urrian egindako Eusko Ikaskuntzaren XIX. Kongresuan egin zen aurkezpena. Topaketa horretan, proiektuaren zuzendari zientifiko Patxi Juaristik eta Talde Eragileko kideek proiektuaren ondorioak azaldu zituzten. Lehen sozializazio-ekintza horrek interes handia sortu zuen euskal nortasunari buruz eztabaidatzeko eta hausnartzeko.





GizarteLAB: komunitate dibergente eta eraldatzaileak

GizarteLAB programak, herritarrak sentsibilizatu nahi ditu komunitatea sortzearen eta gaitasun sozialetan trebatzearen garrantziaz, eta tresnak eman nahi dizkie, tokiko politiken parte aktibo eta eraldatzaile izan daitezen, udalekin lankidetzan. Horrez gainera, tokian tokiko ahultasunak ebaluatzen, irtenbide-ereduak zehazten eta esperientziak arian-arian ezartzen laguntzen du.

Helburuak

Herritarrak ahalduntzea du helburu, trantsiziorako gizarte-gaitasunak garatuz eta tokiko erronkei konponbide sortzaile, kolaboratibo eta inklusiboekin aurre egitea ahalbidetuko duten komunitateak sortuz.

2024ko jarduerak

Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin eta inplikaturako udalekin elkarlanean, programa osatzen duten hiru faseak gauzatu ziren hainbat herritan: hastapen- eta sentsibilizazio-fasea, komunitatea eraikitze eta ekimenak diseinatzeko fasea, eta programaren inplementazio- eta transmisio-fasea.

Hernialde

Hernialden herria biziberritzeko eta sare sozialak sortzeko erronkari heldu zitzaion, kultura komunitarioa indartzeko bide gisa. Lantegietara askotariko pertsonak hartu zuten parte, herria biziberritzeko konpromisoa hartuz.

Irun

«EndREdatu Irun» ekimenaren bigarren fasean, elkarte gehiagotako ordezkariekin eta Udaleko teknikarien presentziarekin aberastu zen komunitatea, belaunaldien arteko erreleboaren arazoari aurre egiteko. Sei lan-saioetan, ekimen komunitarioen prototipoak egin ziren, eta haietako bat martxan dago jada.

Legazpi

Legazpiko komunitatea —GizarteLAB programaren erreferentzia izan da 2019an hasi zenetik— finkatzen eta zabaltzen joan da. 2024ko esperientzia batukada bat izan zen, eta adin guztietako berrogeita hamar pertsona baino gehiago inplikatzeko lortu zuen. Urriaren 19an aritu zen lehen aldiz, Kulturarteko Egunaren programaren barruan.

Mutiloa

«Mutiloarrak elkar zaintzen» ekimenaren bigarren edizioan, herritarren konfiantzako sare autonomo eta independentea sortzeko erronkari egin zitzaion aurre. Sei lantegi antolatu ziren, tresna kolektiboak garatzeko, eta horietatik bi esperientzia atera ziren —azaroan eta abenduan inplementatu ziren—.



Eusko Ikaskuntzaren jarduera zientifikoa



Lurralde Oreka: Herri Txikien Akademia

Eusko Ikaskuntzaren Lurralde Oreka lan-programaren barruan dago Akademia, eta Euskal Herriko herrietan lurralde-koheretza, kulturaren zaintza eta bidezko aurrerapena sustatzeko ekimenak bultzatzea du xede. Esperientziak partekatzeko, ideiak sortzeko eta komunitate txikien artean loturak indartzeko topagunea da proiektua, eta ongizatea eta erresilientzia lortzen laguntzen die.

Helburuak

- Herri txikiei eta euskal landa-inguruneari buruzko informazio eguneratua biltzea, eta landa-garapena eta erakunde horien egoera behar bezala diagnostikatzeko datuak eta estatistikak bildu eta aztertzea.
- Merkataritzari eta errotzeari buruzko ikerketa tematikoa aurrera eramatea.
- Landa-eremuen eta hiri-eremuen arteko akordiorako oinarriak ezartzea.

2024ko jarduerak

Landa-eremuetako merkataritza

2024ko lehen erdian, Akademiak ikerketa baten fase kualitatiboa osatu zuen, elkarrizketetan oinarrituta. Ikerketak erakutsi zuenez, landa-inguruneko merkatariek zailtasun handiak badituzte ere negozio tradizionaleri

eusteko, etorkizun oparoa dute berrikuntzaren eta zerbitzuen dibertsifikazioaren bidez egokitzea lortzen badute.

Aurreko diagnostikoan oinarrituta, 2024ko irailaz geroztik, landa-merkataritza biziberritzeko eta haren jasangarritasuna eta modernizazioa sustatzeko proposamen espezifikoak egiteari ekin zion Herri Txikien Akademiak.

Transis Lab: landa-eremuetako bizitza-luzerari buruzko mugaz gaindiko laborategia

Otsailaren 29an, Gasteizen, TransisLab aurkeztu zen, landa-eremuetako bizitza-luzerari buruzko gizarte-berrikuntzako mugaz gaindiko laborategi bizia. Esperimentazio-laborategi horrek laguntza sozio-sanitarioko sei esperientzia pilotu bultzatuko ditu Euskal Herriko landa-eremuetan adineko 400 pertsona kalteberaren bizi-kalitatea hobetzeko. Eusko Ikaskuntza partzuergoko kide da, eta proiektutik sortzen diren proposamenen kapitalizazioaz eta transferentziaz arduratzen da.

Azaroaren 28an eta 29an, Irungo Ficoban, aurrerapenak aztertu zituzten partzuergoko bazkideek, eta programaren hurrengo faseak zehaztu ere.





Hezkuntza-sistema: etorkizuna elkarrekin eraikitzen

Programa horren helburua da etorkizuneko Euskal Hezkuntza Sistemaren inguruan herri-hausnarketa egitea. Errealitate desberdinak aintzat hartuta lurralde guztiak bilduko dituen balizko «hezkuntzako esparru-sistemaren» oinarriak bistaratzeko xedez, interes komuneko zeharkako gaiei buruzko hausnarketak bultzatzen ditu.

Nola bideratu hezkuntzatik Euskal Herriko gizarte- eta lurralde-koherentsia? Galdera horri erantzun nahian, funtsezko beste galdera batzuk agertzen dira: Zer espaziotan sor daitezke koherentsiaren aldeko praktika kontzientek? Zer dira azterketa-esparruak? Nolako harremanak eta sareak sortu behar dira horiek gauzatzeko eta sistematizatzeko? Zein izango litzateke hezkuntzaren esparru partekatua etorkizuneko euskal eremuan? Zein dira oinarriak eta gauzatzeko bideak?

Helburuak

Galderei erantzuteko, helburu espezifiko hauek planteatu dira:

- Hezkuntzaren esparruan koherentsia interpretatzen lagunduko duen esparru teorikoa sortzea, Euskal Herrian elkar ulertzeko hizkuntza komuna eraikitzeko.
- Hezkuntza-etapa bakoitzaren diagnostiko bateratua egitea.
- Zeharkako lerroak eta/edo egiturazko azpigaiak zehaztea, hezkuntza-etapez osatutako ekosistema trinkotzeko, herrialdearen ikuspegi integraletik.

2024ko jarduerak

Bateratze-foroa

Ekainaren 15ean Irunen deitutako bateratze-foroan 40 lagun bildu ziren, eta galdera honi erantzuteko oinarriak ezartzen saiatu ziren: Nola bideratu hezkuntzatik Euskal Herriko gizarte- eta lurralde-koherentsia?

Parte hartzeko prozesuan lortutako gakoak aurkeztu zituzten foroan, eta haiek baliozkotzeko eta ideiak biltzeko lana egin zuten, sakontze aldera.

Hezkuntza-etapen arabera, lankidetzaren sektore izan daitezkeenekin lotutako proposamenak eztabaidatu, hautatu eta aztertu zituzten, eta aurrera egin zuten lurraldetasunean oinarritutako lan-ildo estrategikoak eta lankidetzaren proiektuak definitzeko bidean.

Ildo estrategikoak eta lankidetzaren proposamenak zehaztu zituzten, haiek lortzeko behar diren ezagutzak, aliantzak eta harreman-motak xehetasunez azalduta. Lurralde-ikuspegitik, hezkuntzak koherentsiari dagokionez duen interpretazio-esparruan sakondu zuten.

Lortutako emaitzak Eusko Ikaskuntzaren XIX. Kongresuan aurkeztu ziren, prozesuan parte hartu zutenekin kontrastatu ondoren.



Eusko Ikaskuntzaren jarduera zientifikoa



Irakaslea aldaketa-eragile gisa

Egungo erronka sozialei erantzuteko, eraldaketa-prozesu batean murgilduta dago XXI. mendeko Euskal Hezkuntza Sistema. Prozesu horretan, ikastetxea da ardatza eta protagonista. Erakunde ahaldundu horrek lidergo partekatua sustatzen du, eta ikaskuntzan eta hezkuntza-komunitate osoaren etengabeko hobekuntzan oinarritutako berrikuntza bultzatzen du.

Erronka horri erantzuteko, beharrezkotzat jotzen dira, besteak beste, irakasleen zereginari buruz hausnartzea, eta galdetzea nola eboluzionatu behar duten eta nola sustatu eta babestu behar diren.

Eusko Ikaskuntza eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila lanerako bide partekatuak lantzen ari dira, egungo hezkuntza-sistemak dituen erronkei aurre egiteko erantzunetan sakontzeko. Horren harira, bi kontu lehenetsi dira: bata, segregazioaren erronka, adostasunak ehuntzera behartzen duena, eta, bestea, irakasle-lanbidearen garapena.

Helburuak

Aipatutako lehentasunetatik bigarrenean kokatu da «Irakaslea aldaketa-eragile gisa» jardunaldia: lanbidearen oraina eta etorkizuna. Helburua zen irakasle-lanari eta haren rolaren bilakaerari buruzko ikuspegiak, ikuspuntuak eta esperientziak (tokikoak zein nazioartekoak) bateratzea.

2024ko jarduerak

Bilbo: jardunaldia

Azaroaren 16an, Bilbon, hezkuntzako 140 profesional inguru bildu ziren irakasleen zereginari buruz hausnartzeko, tokiko eta nazioarteko esperientziak kontuan hartuta. Jardunaldia Eusko Ikaskuntzaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzeta-hitzarmenaren esparruan antolatu zen, eta Begoña Pedrosa Hezkuntza-sailburuak inauguratu zuen.

Helsinki Unibertsitateko katedradun eta Ekitaterako eta Ikaskuntzaren Kalitaterako Hezkuntza Ekosistemaren UNESCO Katedrako kide Hannele Niemik bi galdera hauei erantzun zien: Nola lagundu irakasleei aldaketaren eragile izaten? Nolako izan behar du irakasleen garapen profesionalak?

Azkenik, irakasleek gaur egun dituzten erronkak eta zereginak jorratu ziren mahai-inguru batean.





Eskubide kulturalak: parte-hartze eta gobernantzarako politikak

2022az geroztik, Eusko Ikaskuntzak parte-hartze kulturala sustatzeko proposamenak egiteko konpromisoa du, eskubide kulturalak erreferentzia-esparrutzat hartuta.

Helburuak

- Euskal Herri osora hedatzea eskubide kulturei buruzko eztabaida, eta politika kulturalak egungo beharretara egokitzea.
- Euskal Herriko eskubide kulturalen egoeraren diagnostikoa egitea, esploratzeko ikerketa baten bitartez.
- Gogoeta kolektiboa egitea kulturaren eginkizun eraldatzaileaz.
- Protokolo ideal eta praktiko bat garatzea, ekimen kultural inklusibo, jasangarri eta berdintasunezkoa lortzeko.
- Eskubide kulturalak behar bezala bermatuko dituzten jardunbide egoki globalak biltzea eta zabaltzea, politika kulturalak birformulatzeko proposamen eta eredu eraginkorrak oinarri hartuta.

2024ko jarduerak

Sistematizazioa eta kontrastea

2024. urtean zehar, Euskal Herrikoaren antzeko lurralde-eskala eta errealitate soziolinguistiko parekagarria dituzten nazioarteko erakunde publikoetan aplikatzen diren kultura-politikak aztertzen jarraitu dugu.

Horrekin batera, proiektua hasi zenetik sortutako material guztia sistematizatu dugu, eta, hortik abiatuta, ondorioen txostena prestatu. Horretarako, martxoan, apirilean eta maiatzean lan-mintegiak egin ziren Talde Eragileko kideen artean. Uztailean, Bilboko Udalarekin lankidetzan, kontraste-topaketa bat antolatu zen. Memoria honen 31. orrialdean dago horri buruzko informazioa.

Urriaren 3an, Eusko Ikaskuntzaren XIX. Kongresuan aurkeztu ziren proiektuaren ondorioak.





Nafarren arteko balio partekatuak euskararen inguruan

Eusko Ikaskuntzaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko lankidetzeta-hitzarmenaren barruan, ikerketa-programa honek sakon aztertu du Nafarroako Foru Komunitatearen errealitate soziolinguistikoa, hortik etorritako arazo soziopolitikoak hobeto kudeatzeko eta herritarrek euskararen sustapenaren inguruan parteka ditzaketen balioak ezagutzeko alde aurreko urrats gisa.

Helburuak

- Nafarroan euskara sustatzeari buruzko balio edo diskurtso partekatu eta ez partekatuak identifikatzea eta aztertzea.
- Balioen edo diskurtsoen banaketa soziala aztertzea, talde linguistikoen arabera (euskaldunak/gaztelaniadunak), adin-taldearen arabera, generoaren arabera, eremu soziolinguistikoen arabera...

2024ko jarduerak

Azterketa kuantitatiboa

Aurreko fase kualitatiboan lortutako diskurtsoak baloratzea izan zen fase honen helburua. Telefonoz 903 elkarrizketa egin ziren 16 urtetik gorako biztanle nafarren artean, errealitate demografiko eta soziolinguistikoa kontuan hartuta. Fase kualitatiboan identifikatutako osagai diskurtsiboen pisua eta banaketa hartu zen kontuan. Hain zuzen ere, fase horretan agertutako gaietatik abiatuta egin zen galdetegia.

Proiektuak emaitza nabarmenak lortu zituen; honako hauek, besteak beste:

1. Inkesta kuantitatiboaren arabera, Nafarroako biztanleen % 63 euskararen sustapenaren aldekoa edo oso aldekoa da.
2. Nafarroako biztanleen % 52k positiboki begiratzen dio komunitate euskaldunari.
3. Bi talde diskurtsibo bereizi dira: sustapen handiagoaren alde egiten dutenak eta gizartean disonantziak sortzen dituztenak.

Ikerketa horrek Nafarroako gizartearen aniztasun linguistikoa eta kulturala islatu du eta euskararen sustapenari begira garrantzitsuak izan daitezkeen diskurtsoak identifikatu ditu.





Ituntzen: zaintza-arloko itunak ehuntzen

Zaintzen eta ongizate-politiken plangintza estrategikoak akordio sendoak behar ditu erakundeen, gizarte-eragileen eta hirugarren sektoreko erakundeen artean. Itun horiek koherentzia eta lankidetzaren bermatzen dituzte hainbat eskalatako proiektuetan, politiken zilegitasuna sendotzen dute eta askotariko sektoreen parte-hartze ekitatiboa sustatzen dute.

Proiektu hori XIX. Kongresuarekin bat etorrira garatu zen, herrialde-mailako akordioak lortzeko helburuarekin eta Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarekin lankidetzan.

Helburuak

- Zaintza- eta ongizate-ereduak hainbat eragilerekiko adosteko espazioa sortzea.
- Zaintzen erronkari eraginkortasunez erantzun egiten dioten proposamen integral eta jasangarriak garatzea, faktore ekonomiko, sozial, ingurumeneko eta ekitatezkoak aintzat hartuta.
- Zaintzei eta ongizateari buruzko erabakiak hartzeko prozesuan funtsezko eragileen parte-hartze aktiboa sustatzea.

2024ko jarduerak

Irailean eta urrian, hiru foro estrategiko antolatu ziren zaintzen sistemaren hainbat erronka lantzeko:

Zaintzen jasangarritasuna

Irailaren 17an, Bilbon, sistemaren bideragarritasun finantzarioaz eztabaidatu zen, zerbitzuen eskaera gero eta handiagoa ikusita. Hura indartzeko estrategiak aztertu ziren, hala nola zerga-politikak berrikustea eta baliabideak optimizatzea, eraginkortasuna eta jasangarritasuna hobetzea xedetzat hartuta.

Eplegua eta erantzunkidetasuna zaintzetan

Urriaren 16an, lan-merkatuak eta ordaindu gabeko lanak zaintzen sektorean duten eragina aztertu zen Donostian. Bertan nabarmendu zenez, etengabeko prestakuntza, trebetasunen ziurtapena eta teknologien erabilera beharrezkoak dira, zaintzaren eraginkortasuna hobetzeko, kalitatea arriskuan jarri gabe. Gainera, lan-egonkortasuna zaintzaileen eta zainduen ongizatearekin nola orekatu eztabaidatu zen.

Belaunaldien arteko konpromisoa

Urriaren 16an bertan —arratsaldeko saioan—, belaunaldi desberdinek zaintza-sistemari buruz duten pertzepzioa eta eginkizuna aztertu ziren Donostian. Belaunaldien arteko ekitatea sustatzeko estrategiak eztabaidatu ziren, bai eta gazteek alor horretan dituzten aurreikuspenetara egokitzeko egungo politiken gaitasuna ere.



Eusko Ikaskuntzaren jarduera zientifikoa



Euskal Herria, lurralde bizia, muga-espazioa, klima-larrialdiaren erronkaren aurrean

«Euskal Herria, lurralde bizia, muga-espazioa, klima-larrialdiaren erronkaren aurrean: oztopoak eta zailtasunak erronka bihurtzen, lurralde-kohesiotik eta herritarren partaidetzatik abiatuta» izeneko proiektuaren helburua da lurraldeen arteko elkarriketa indartzea eta elkar ezagutzeko eta elkarrekin pentsatzeko lan-eremu partekatua sustatzea. Hortik abiatuta, lan-programa berri horrek lurraldeen arteko lankidetzaren alde egiten du, erronka komunei aurre egiteko, klima-aldaketa barne.

Helburuak

- Euskal Herriaren lurralde-kohesioaren alde metatutako ezagutza eta esperientzia zabaltzea, gobernatzaren arlo guztietako erakunde eta eragileekin diagnostiko komun bat eginez eta partekatuz, lurralde bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuta.
- Lurralde-kohesioaren arloko baliabideei eta lan-tresnei buruz hausnartzea, Europako esperientzia eta klima-larrialdiaren esparruan garatzen ari diren beste metodologia eta baliabide batzuk aintzat hartuta.
- Sinergia instituzionalak aztertzea eta eragile sozialekin partekatzea, EAEko eta Nafarroako lurralde-kohesioan sakontzeko.
- Euskal lurraldeen artean lankidetzaren esparruak ezartzea herritarren parte-hartze aktibo eta arduratsuaren arloan, erronka komunei erantzun bateratua emateko; besteak beste, klima-larrialdiari.

2024ko jarduerak

Txostena eta mintegiak

Urtean zehar, txosten bat landu zen, parte hartzeko sistema arduratsu, aktibo eta lurraldearen ikuspegitik kohesionatzailearen beharraz hausnartzeko, gaur egungo trantsizioei eta, bereziki, klima-aldaketaren erronkei heltzeko.

Txosten hori egiteko, erakundeen eta eragileen estrategiak eta politikak aztertu ziren, bai eta lurralde-kohesioaren eta klima-larrialdiaren arteko lotura estuari buruz hausnartu eta partaidetzako kulturaren garrantzia azpimarratu ere.

Lan-mintegietan, txostena kontrastatu eta osatu egin zuten euskal lurraldeetako hainbat eragile politiko eta sozialek. Azterketa kualitatiboarekin batera, lurralde-kohesioaren aldeko itunean jaso zitezkeen konpromisoak eztabaidatu ziren. Hala ere, lurraldetasunaren inguruan eztabaida egituratua irekitzeko beharra ikusi zen.

Emaitzak eta ondorioak urriaren 4an jakinarazi ziren Eusko Ikaskuntzaren XIX. Kongresuan. Euskonews aldizkarian eta Solasaldiak bideo-elkarrizketen atalean ere jorratu zen gaia.





Ikerketa Sustatzeko eta Laguntzeko Programa

Ikerketa da gure gizartearen berrikuntzarako eta lehia-garapenerako gakoetako bat. Horregatik, funtsezkoa da ikerketa unibertsitate-garaitik sustatzea, gazteak animatzeko, laguntzeko eta bultzatzeko jakintzaren aurrerapenari lagunduko dioten lanak egitera edozein diziplinatan.

Premisa horrekin, eta azterketa, prospektiba eta ikerketa sustatzeko xedez, Eusko Ikaskuntzak Ikerketa Sustatzeko eta Laguntzeko Programaren lehen edizioa deitu zuen, Euskal Herriko zazpi unibertsitateekin elkarlanean jardunda: Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Nafarroako Unibertsitatea, Urrutiko Hezkuntzako Unibertsitate Nazionala eta Université de Pau et des Pays de l'Adour.

2024ko jarduerak

Ikerketa Sustatzeko eta Laguntzeko I. Programaren bidez hiru laguntza edo beka eman ziren 2024-2025 ikasturterako, bereziki masterreko, doktoregoko, graduako 4. mailako eta gradu bikoitzeko 5. mailako ikasleentzat —bakarka zein taldean—.

Lehentasunezkoztat jotako 13 gai finkatu ziren, helburu hauekin: balizko ikerketa-gaien hasierako azterketa sustatzea, lehen hilabeteetako lana bultzatzea eta etorkizuneko ikerketa-ildoan «artearen egoera» egiten laguntzea.

Lehenengo deialdira 24 proposamen aurkeztu ziren —20 euskaraz— 27 ikasleren eskutik: 20 emakumeak ziren, eta 7 gizonak, lurralde guztietakoak, Bizkaia izanik ordezkatuena.

2.000 euroko laguntza jaso zuten irabazle bakoitzak, honako hauek izan zirelarik:

- Elene Igoa Iraola (Gipuzkoa), «Beherakada demografikoa: Euskal Herriko erakundeen erronka nagusia» proiektuagatik.
- Amaia Rodríguez Aguirre (Ipar Euskal Herria), «Ahozko Handia: murgiltze ereduko ikasleen estrategia elebidunak eta herritartasun soziolinguistikoa indartzeko aukera ote?» proiektuagatik.
- Mihiret Elisabet Zarate Beitia (Araba), «Zein gobernantza behar du euskal gizarte zerbitzuen sistemak zaintza bermatzeko?» proiektuagatik.

XIX. KONGRESUA

Eusko Ikaskuntzaren XIX. Kongresua. Elkartzen Gaituena / Lo que nos une / Ce qui nous rassemble



Eusko Ikaskuntzaren XIX. Kongresua urriaren 2an, 3an eta 4an egin zen, Gasteizko Europa Biltzar Jauregian. *Elkartzen Gaituena / Lo que nos une / Ce qui nous rassemble* leloak ondo asko laburbiltzen du Eusko Ikaskuntzak Euskal Herriaren gizarte-eta lurralde-kohesioaren aldeko irizpideak bateratzeko duen asmoa. Partekatutako beharretatik abiatuta, adostasunak lortu eta proposamenak egin nahi izan dira esparru sozio-ekonomikoan, sozialean eta lurraldekoan, kontratu sozial propio berri baterako baldintza egokiak sortzeko.

Kongresuak 1.000 parte-hartzaile inguru izan zituen, eta kohesiorako ibilbide-orri berria atera zen handik, etorkizun kolektiborako aldaketa-palanka batzuen bidez jorratu beharrekoa. Hala, bide zoragarria ireki zen noranzko horretan modu koordinatu eta integratuan aurrera egiteko, eragile sozial, ekonomiko eta politikoen inplikazioarekin.

XIX. Kongresuaren sozializazioa eta zabalkundea

Kartela

Urte-hasieran aurkeztu zen ofizialki XIX. Kongresuaren kartela, handik hilabete batzuetara jardunaldiak egingo ziren leku berean: Gasteizko Europa Jauregian. Belén Moreno Zaldibar artista gipuzkoarrak irabazi zuen lehiaketa



Prentsari aurkeztea

Komunikabide nagusiek eman zuten Gasteizen Eusko Ikaskuntzaren XIX. Kongresua aurkezteko urtarrilaren 26an egindako prentsaurrekoaren berri. Egun horretan bertan, arratsaldean, beste horrenbeste egin zen eragile sozial, politiko eta ekonomikoen aurrean, baita elkarteko bazkideen aurrean ere.



Beer-pentsatu

«Beer-pentsatu» izeneko elkarrizketa-gune informalak antolatu ziren ekainaren 18an (Donostian), uztailaren 11n (Bilbon) eta irailaren 19an (Gasteizen).



Sare sozialak

Urtean zehar, sare sozialen bidez lehiaketak eta zozketak egin ziren kongresuarekin lotutako gaien eta elementuen inguruan. Elkar fundazioaren eta Jardines de Uleta hotelaren laguntzarekin, hainbat ekimen jarri ziren sareetan #ElkartzenGaituena traolarekin. Parte-hartzea bultzatzeko, sariak banatu ziren partaideen artean. Era berean, KUKAIren gogoeta sortzailearekiko interesa pizteko, «moskeo-kanpaina» bat abiarazi zen sareetan, taldeari eta kongresuan egindako agerpenei buruzko zeharkako aipamenak eginez.

Hasiera-ekitaldia

XIX. Kongresuaren hasierako ekitaldia urriaren 2an izan zen, eta oihartzun handia izan zuen komunikabideetan. Erakundeetako ordezkarien artean hauek izan ziren: Imanol Pradales lehendakaria, Ana Ollo Nafarroako Gobernuako bigarren lehendakariordea, Ramiro González Arabako diputatu nagusia eta Mainer Etxebarria Gasteizko alkatea.

Bertan izan ziren, halaber, Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko lehendakaria, Unai Hualde Nafarroako Parlamentuko lehendakaria, Eider Mendoza Gipuzkoako diputatu nagusia eta Marisol Garmendia Espainiako Gobernuako ordezkaria, baita Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkari batzuk ere, besteak beste.





1. ardatza. Eredu sozio-ekonomiko berria eta ongizatearen gizartea (2024-10-02)

Eredu sozioekonomikoa egokitzeko eta ingurumen-jasangarritasunean oinarritutako ekonomia berri baterantz joateko beharra dela eta, kongresuko lehen jardunaldian honako hauek birpentsatzea proposatu zen: produkzioaren eta banaketaren paradigmak, aurrerapenaren kontzeptua, lan-merkatuaren erronkak, digitalizazioaren ondorioak eta produktibitatearen hobekuntza, besteak beste.

Andoni Eizagirre Mondragon Unibertsitateko katedradunak eman zion hasiera saioari, eta Euskal Herriko ongizatea birdefinitzeaz eta etorkizuneko eredu sozioekonomikoaz aritu zen. Esparru-konferentzia University College of Londoneko Hilary Cottam-ek egin zuen. Erresuma Batuko gizarte-laguntzaren inguruko narratiba eta praktika aldatzeagatik ezaguna izanik, giza duintasunean, inklusioan eta elkarrekiko laguntzan oinarritutako ongizate-estatuaren ikuspegi eraldatzailea eskaini zuen. CSICEko Giza eta Gizarte Zientzien Zentroko María Ángeles Duránek, berriz, «Ordaindu gabeko lana eta horrek egitura sozioekonomikoarekin duen harremana» txostena aurkeztu zuen.

Jardunaldiaren programa hiru multzotan banatu zen, eta adituek osatutako beste horrenbeste mahai-inguru egin ziren: garapen ekonomikoa, enpleguaren jasangarritasuna eta ongizatea, eta iraunkortasuna eta belaunaldien arteko elkartasuna.

Eusko Ikaskuntzaren XIX. Kongresuaren lehen ardatz horrek agerian utzi zuen Euskal Herriko eredu sozioekonomikoa ikuspegi jasangarriago eta bidezkoago baterantz eraldatu behar dela. Horrek esan nahi du pertsonak ardatz izango dituen eta interdependentzian eta lankidetzan oinarrituko den ongizate-estatu behar dugula.



2. ardatza. Jendartea (2024-10-03)

Gizarte-kohesio handiagoa lortzeko, Euskal Herrian bizi diren pertsonen errealitateaz hausnartu beharra dago: aniztasunaz, kulturartekotasunaz eta/edo bizikidetzaz, eta eskubide eta betebeharez, konpromisoaz eta elkarrekikotasunaz. Hezkuntza-sistemak eta kulturak funtsezko zeregina dute kudeaketaren eta parte-hartzearen ikuspegitik, bai eta ikaskuntza-komunitate txikiek ere.

Gai horiek oinarri hartuta, Eusko Ikaskuntzak azken urteotan landu dituen lau ikerketa-programaren ondorioak eta proposamenak aurkeztu ziren XIX. Kongresuaren bigarren jardunaldian: *Euskal nortasuna(k) XXI. mendera begira: 2050 helburu*; *Euskal Hezkuntza Sistema: etorkizuna elkarrekin eraikitzen*; *GizarteLAB: Gizarte Berrikuntzarako Esperimentazio Laborategia*, eta *Eskubide kulturalak: partaidetza eta gobernantza-politikak*.

Lau proiektu horiek erakutsi dute inklusibotasuna, parte-hartzea, aniztasuna eta lankidetzaz funtsezkoak direla euskal gizartearen etorkizuna eraikitzeko. Ildo horretan, Eusko Ikaskuntzak aniztasuna eta bizikidetzaz sustatzeko plana egitea planteatu zuen, erakundeei zuzeneko bitartekaritzaren bidez laguntzeko.

Horren guztiaren aurretik, hitzaldi hau eskaini zuen Salamancako Unibertsitateko ikertzaile Lola S. Almendrosek, informazioaren eta komunikazioaren teknologiei eta adimen artifizialari lotutako arazoetan espezializatuta dagoenak: «Egungo gizarteak eta haien sareak: bilakaera, parte-hartzea eta bizikidetzaz».

XIX. Kongresuaren programaren barruan, Kukai Dantza Taldeak kongresuan aurkeztutako proiektuen mezu eta emaitzetan inspiratutako gogoeta sortailea aurkeztu zuen. Euskal Herriko aniztasun soziokultural handiaren ordezkari diren zenbait artistak hartu zuten parte emanaldi horretan, eta kongresuaren hiru egunetako unerik hunkigarri eta bizienetako bat izan zen.

XIX. Kongresua



3. ardatza. Lurraldetasuna (2024-10-04)

Hirugarren eta azken jardunaldia lurraldeen arteko harremanei buruzkoa izan zen. Elkarrizketa nahitaezko baldintzatzat hartuta, lurraldeen arteko kohesioari lagunduko dioten gutxieneko adostasunak zein izan daitezkeen aztertu zen.

Lurraldeen arteko oreka: Herri Txikien Akademia proiektuak herri txikien jasangarritasunerako gako batzuk ezagutarazi zituen, bai eta errotzeari buruzko esparru-ikerketa baten ondorioak ere.

Ondoren, mahai-inguru batean bildurik, nazioarteko aditu batzuek Europan lurralde-subiranotasunari lotuta ageri diren gatazken kudeaketari buruz eztabaidatu zuten, eta gatazka horiek konpontzeko oinarritzko proposamen bat aurkeztu zen. Bestalde, Cristina Lafont-ek, Northwesterreko Unibertsitateko ikertzaileak, demokraziaren krisiari eta populismoaren eta teknokraziaren aurka herritarren parte-hartzea indartzeko moduei buruzko esparru-hitzaldi eman zuen.

Hirugarren eta azken blokean, «Euskal Herria, lurralde bizia, muga-espazioa» azterlanaren emaitzak azaldu ziren; ondoren, mahai-ingurua egin zen, klima-larrialdiaren aurrean lurralde-kohesioa lortzeko politikak eta estrategiak ardatz hartuta.



Ondorioak

Kongresuko hiru jardunaldietan, etorkizun hobearen eraikitze hainbat aldageta-palanka identifikatu ziren: balio soziokomunitarioak indartzea eta transmititzea; komunitatea ahaldundzea eta komunitatea eraikitzea; parte-hartzea eta demokrazia bultzatzea; hezkuntza eta prestakuntza; gizarte-hezkuntzaren garrantzia; mugaz gaindiko lankidetzaren eta lurraldeen arteko aliantzak indartzea; herritar guztien eskubide kulturalak bermatzea; ekonomia jasangarria eta soziala; teknologia eta berrikuntza, eta ingurumenaren babesa eta jasangarritasuna.

Ondorioekin batera, lau arlotako proposamenak planteatu ziren: kultura eta identitatea mantentzea eta garatzea; kohesio soziala eta eraikuntza komunitarioa indartzea; lurralde-kohesioa eta demokrazia, eta Euskal Herriko ekosistema sozioekonomiko solidarioa eta partaidetzakoa sortzeko konpromisoa.

Kongresua datuetan

919 hiru egunetan zenbatutako pertsonak

110 pertsona taula gainean

65 hizlari

8

kanpoko ikuspegia

57


Euskal Herriko ikuspegia

4 hitzaldi nagusi

4 emakumeak

2 nazioartekoak

Kongresuaren jarraipena irudietan



Kongresua hedabideetan



BESTE PROIEKTU ETA EKIMEN BATZUK

Artitz, Guggenheim Bilbao Museoko Dokumentazio Zentroa

2017tik aurrera, Eusko Ikaskuntzak euskararen, dokumentazioaren eta teknologiaren arloan dituen esperientzia eta ezagutza eskaintzen ditu, Artitz online plataforma aberasteko. Guggenheim Bilbao Museoa sortu zenetik gaur arte antolatu dituen arte-erakusketen inguruko dokumentazioa eta eduki nagusiak daude plataforma horretan, euskaraz.

2024an, 9 erakusketa landu ditu: Giovanni Anselmo, Símbolos y objetos, Metahaven, June Crespo, Martha Jungwirth, Anthony McCall, Yoshitomo Nara, Hilma af Klint eta Paul Pfeiffer.

www.guggenheim-bilbao-artitz.eus

EuskarAbentura

Abentura horren lehen ediziotik, gazteek aurkezten dituzten proiektuak ebaluatuz laguntzen du Eusko Ikaskuntzak ekimen berezi honetan.

Zazpigarren edizioan, 247 lan aurkeztu ziren. Guztira 1.300 proiektu ebaluatu izan dira 7 urteotan: obra historikoak, literarioak (ipuinak, olerkiak...), musikalak, ikus-entzunezkoak eta artistikoak (pintura, collagea, argazkia...). Euskal Herriko zazpi lurraldeetako eta diasporako 15 eta 17 urte bitarteko gazteek sortu dituzte, espedizioan parte hartzeko gogoz eta ilusioz.

euskarabentura.eus



Udalak

Eusko Ikaskuntzak lankidetzan estuan jarraitzen du Euskal Herriko udalekin. Gaur egun, bi lan-arlo nagusi ditu: «etorkizuneko erronkei buruzko agenda propioan eragitea» eta «herrietako historian eta ondarean sakontzea».

Baiona

Urtarrilaren 11n, Eñaut Etxamendik «L'origine de la langue basque» liburua aurkeztu zuen Eusko Ikaskuntzaren Baionako egoitzan. Martxoaren 14an, Philippe Oyhanbururen omenezko «Bizi naizena je danserai la vie» dokumentala eman zen, Lucia Barahona bilobak egina.

Irailaren 21ean, Errepublika plazan, Baionako hizkuntzei buruzko idazketa-lantegia eman zuen Meryl Marchetti idazleak. Abenduaren 3an, Kirmen Uribek hitzaldia eman zuen Baionako Mediatekan.

Biarritz

Maiatzaren 25ean, Aragoiko jantzi tradizionalei buruzko hitzaldia eman zuen Maritzuli konpainiak.

Bilbo: sinposioa

Eusko Ikaskuntzak Bilboko Udalarekin batera antolatutako Bilboko sinposioaren edizio honetan, uztailaren 2an, Parte-hartze kulturalerako politikak – Kultur eskubideak lan-programaren ondorioak kontrastatu eta aberastu zituzten kulturaren arloko hainbat eragile eta elkartek.

Oskia Ugarte zuzendari zientifikoak eman zion hasiera saioari, eta Maider Zilbetik «Parte-hartze kulturalerako politikak, kultur eskubideak iparroratz gisa hartuta» txostena aurkeztu zuen. Kultur eskubideen egoera Ipar Euskal Herriaren ikuspegitik azaldu zuen Alaia Cachenautek, eta Iratxe Retolazak, berriz, Euskal Herri osoko kultura-eskubideen mapa eta erronkak finkatu zituen.

Lurzoru komun eta adostua eraikitzeko asmoz, ondorioen txostena kontrastatzean eskubide kulturalen hiru dimentsioei erreparatu zitzaizen: partaidetza, gobernantza eta kultura-kudeaketa.

Donapaleu

Apirilaren 5ean, «Euskaldunak Australian» erakusketa inauguratu zen, eta Esther Corta erakusketako komisarioak, Claude Mehats Eusko Ikaskuntzako Ipar Euskal Herriko lehendakariak eta Donapaleuko alkateak hartu zuten parte. Apirilaren 12an, Esther Cortak hitzaldia eman zuen, 50eko hamarkadan Australia aldera abiatu ziren migrazio-mugimenduei buruz. Erakusketa apirilaren 25ean bukatu zen.

Beste proiektu eta ekimen batzuk



Donibane Lohizune

Urtarrilaren 20an, Madeleine de Jaureguiberryren inguruko mahai-ingurua antolatu zen, eta Maider Bedaxagak, Maritxu Negeluak eta Eloïse Durandek hartu zuten parte. Udalarekin batera, Begiraleak elkarteak lagundu zuen.

Eusko Ikaskuntza – Donibane Lohitzuneko Musika saria Eñaut Etxamendiri eman zitzaion Ohorezko kategorian, eta Maider Martineauri, Gazte Sariaren modalitatean. Saria emateko ekitaldia otsailaren 10ean egin zen, Tanka gunean.

Otsailaren 12an, Oihana Galé Zamponik Lapurdiko inauteriei buruzko hitzaldia eman zuen. Maiatzaren 25ean, mahai-inguru batean parte hartu zuten Martxel Aizpuruak, Emma Arestegik, Maialen Arestegik, Michel Setoinek eta Erle Urdinak, erleak hizpide hartuta.

Hendaia

Martxoaren 28an, «Ahots Hariak» dokumentala aurkeztu zuen Collette Larraburuk. Abenduaren 12an, Anuntxi Aranek Olentzeroren bilakaerari buruzko hitzaldia eman zuen, Hendaiaiko Mediatekan.

Sara

Udalak eskatuta, bi prestakuntza-jardunaldi egin ziren eskualdean lan egiten duten turismo-teknikarientzat. Lehenengo egunean, inguruko kontrabandismoari buruzko hitzaldia eman zen. Bigarren egunean, hiru gai jorratu ziren: inauteriak eta neguko ohitura, euskararen egoera Iparraldean eta diaspora.

Sopela

2021-2023 aldian, Koldo Somokueto ikertzaile bizkaitarrak Sopelari buruzko lan historikoa (1890 eta 1950 artekoa) egin zuen, Ludger Mees EHUko katedradunaren zuzendaritzapean eta Eusko Ikaskuntzaren laguntzarekin.

2024an, Udalak eta Eusko Ikaskuntzak aurrera jarraitu zuten Koldo Somokueto 2001ean hasitako lanarekin, ikerketa-aldia 1948-1979 urteetara luzatuta. Proiektuak udalerraren memoria demokratikoa berreskuratu, ezagutarazi eta gordetzea du helburu, eta 2024-2028 laurtekoan garatuko da.

Urepele

Otsailan «Ahots Hariak» dokumentala eman zen.

Urketa

Otsailean, Lapurdiko inauteriei buruzko hainbat aurkezpen antolatu ziren ikastetxeetan, eta 200 ikaslek baino gehiagok hartu zuten parte.

Urruña

Urtarrilaren 25etik otsailaren 20ra bitartean, Lapurdiko inauteriei buruzko hitzaldiak eman ziren 5 ikastetxeetan.



Beste erakundeekin elkarlanean

Hiru emazte kantariei omenaldia

Ekimen horrekin, 60ko eta 70eko hamarkadetan euskal kultura eta hizkuntza aldarrikatu zituzten hiru emakume nabarmendu nahi izan dira: Lurdes Iriondo, Maite Idirin eta Estitxu Robles. Kontzertu horietan, Patxika Erramuspe, Maite Berrogain, Jaqueline Idiart, Maider Bedaxagar, Maialen Alfaro, Naia Robles eta Pantxika Heguiaphal aritu ziren kantuan.

Honako hauek izan dira 2024an egindako kontzertuak:

- Irailaren 21ean, Biarritzen
- Azaroaren 8an, Getxon
- Azaroaren 28an, Hendaian

Gau Beltzaren aurkezpena

Aurreko urteetan bezala, aurten ere hainbat ekimen gauzatu dira Gau Beltzaren inguruan:

- Urriaren 2tik 13ra, Urruñako ikastetxeetan.
- Urriaren 21ean, aurkezpen bat eta aisialdiko jolas bat egin ziren Urruñan.
- Baionako aisialdi-zentroan Ola jolasa antolatu zen.
- Urriaren 31n, hitzaldi bat egin zen Urruñan, ikastolako gurasoentzat.

Akademiatik Tartarika

2024an zehar, Eusko Ikaskuntzak eta Udako Euskal Unibertsitateak elkarlanean jarraitu zuten, eta hainbat jarduera antolatu zituzten elkarrekin. Urriaren 23an, Baionako egoitzan, Iñaki Alegriak «Ehun urteko gerra Palestinaren aurka» liburua aurkeztu zuen. Azaroaren 7an, Martxe Aizpuruak «Erletxo, erletxo, nagusia hil da» liburua aurkeztu zuen Ortzaizeko Menta liburu-dendan.

Jose Migel Barandiaran Katedra

2024an zehar jarraipena eman zaio 2023an Euskal Herriko Unibertsitatearekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Ataungo Udalarekin eta Jose Migel de Barandiaran Fundazioarekin batera Jose Migel Barandiaran Katedran hasitako lankidetzari. Lankidetzaren horren helburu nagusia ikertzailearen pertsona eta lana balioan jartzea da, baita haren ikerketa-gaiak ezagutzea, sustatzea eta haietan sakontzea ere.

Euskal Kulturgintzaren Masterra

2024an hasi zen Mondragon Unibertsitateak, Udako Euskal Unibertsitateak eta Eusko Ikaskuntzak sustatutako Euskal Kultura masterraren bigarren edizioa. Galdera eta behar zehatzei erantzunez euskal kulturaren eragileak hainbat esparrutan trebatzea da master honen helburua.

SARIAK



2024ko Manuel Lekuona Saria

Juan Mari Beltran Argiñena musikako interprete, ikertzaile, sustatzaile eta irakaslea Eusko Ikaskuntzaren saririk zaharrenaren palmaresean sartu da aurten.

Mende-erdia baino gehiago darama Beltranek musika-ondarea berreskuratzeko, zaintzeko eta transmititzeko lanean, bai alderdi materialean, bai immaterialean. Lan horren ageriko emaitza da Oiartzungo Soinuenea – Herri Musika Txokoa, folklore tradizionalaren inguruko dokumentazio– sustapen- eta topaketa-zentroa.

Ikerlari gisa, herri-musikari eta folkloreaki buruzko ikerketa ugari egin ditu Euskal Herrian eta nazioartean, eta instrumentu-familiak Europako kultura-ingurunean integratzen eta ulertzen lagundu du. Horrez gain, musika tradizionalaren eta garaikidearen arteko zubiak eraikitzen inplikatu da.

2023ko Manuel Lekuona saria ematea

Apirilaren 11n, 2023ko Manuel Lekuona Saria eman zitzaion Iñaki Martínez de Luna soziologo eta soziolinguista arabarrari, Gasteizko Ignacio Aldecoa Kultur Etxean. Sarituaz gain, Ramiro Gonzalez Arabako diputatu nagusiak, Ana Urkiza Eusko Ikaskuntzako lehendakariak eta Abel Ariznabarreta epaimahaiaren ordezkariak hartu zuten parte ekitaldian. Era berean, ikus-entzunezko baten bidez, hainbat pertsonak eta euskalgintzako erakundeetako ordezkariak zoriondu egin zuten saritua.





2024ko Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa Sariak

Itziar Laka Mugarza hizkuntzalariak 2024ko Eusko Ikaskuntza – LABORAL Kutxa saria irabazi zuen, curriculumik onenagatik. Itziar Laka Mugarzak ekarpen berritzaile eta irismen handikoak egin ditu euskararen garapenerako eta hizkuntza-mekanismoetan sakontzeko. 2010ean, hizkuntzalaritza esperimentalari eta neurohizkuntzalaritzari buruzko lehenengo ikerketa-taldea sortu zuen. Itziar Lakaren ikerketa- eta zabalkunde-lanek zientziarentzat, kulturarentzat eta euskal gizartearentzat duen balioa nabarmendu zuen epaimahaiak.

Eusko Ikaskuntza – LABORAL Kutxa Gazte sariaren seigarren edizioaren irabazleak Garazi Navas eta Maite Aizpurua izan ziren, *Adarbakarra eta soinujolea* proiektu performatiboaren egileak. Diziplinartekotasunetik abiatuta, euskal imajinarioan, mitologian eta erreferentzia kulturaletan ikuspegi queer-feminista eta garaikide batekin sakontzea proposatzen du proiektuak.

Blboko Azkuna Zentroan egin zen bi sari horiek emateko ekitaldia, uztailaren 19an. Bertan izan ziren Imanol Pradales Eusko Jaurlaritzako lehendakaria, Ana Olló Nafarroako Gobernuako bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako sailburua, eta Ana Urkiza eta Adolfo Plaza erakunde emaileen ordezkari gisa.



2024ko Eusko Ikaskuntza – Baiona Hiria Sariaren emanaldia

Abenduaren 20an, Eusko Ikaskuntza – Baiona Hiria sariak banatu ziren, Baionako udaletxean. Sariok 25. urteurrena bete zuten 2024an.

Ohorezko sariak Xipri Arbelbideren ibilbide oparoa aintzatetsi zuen, erreferentziatzko kultur eragilea baita.

Euskal kulturaren saria, berriz, Pauline Guelleren tesiak lortu zuen, *L'impunité de la torture dans la consolidation démocratique espagnole: le cas du Pays basque* izenburukoak.

Eta bideo-dokumentalik onenaren saria Lucia Barahonak jaso zuen, *Bizi naizeno je danserai la vie* film luzeagatik. Philippe Oyhaburu (1921-2023) euskal dantzaren eta musika korralaren sortzaile polifazetiko eta berritzaile nabaria izandakoaren ibilbideari buruzkoa da filma.

ZABALKUNDEA



RIEV, 69, 1

Zazpi artikuluk osatzen dute RIEV aldizkariaren 69, 1 zenbakiaren aurkibidea: horietako bi euskaraz daude, hiru gaztelaniaz, bat italieraz eta beste bat ingelesez.

www.eusko-ikaskuntza.eus/eu/riev/revista-internacional-de-los-estudios-vascos-riev-69-1/rar-24459/



RIEV, 69, 2

Urteko bigarren alea, Jakiundek diseinatua, arte zientifiko ederrei eskainia da monografikoki, eta zazpi artikulutan jorratzen dira.

www.eusko-ikaskuntza.eus/eu/riev/revista-internacional-de-los-estudios-vascos-riev-69-2/rar-24461/

Manuel Lekuona Saria: Iñaki Martínez de Luna

Gogoeta eta pasadizoz josia dago haren autobiografia. Gasteizen izan zuen hartzaro erdalduna ekartzen du gogora Iñaki Martínez de Lunak, bai eta gaztetan euskara nola ezagutu eta ikasi zuen ere. Era berean, fenomeno soziologikoekiko kezka piztu zitzaion, eta soziolinguistikan espezializatzerara eraman zuen horrek.

www.eusko-ikaskuntza.eus/eu/publicaciones/inaki-martinez-de-luna/ar-24456/





Koadernoak

2024an, *Vasconia. Cuadernos de Historia-Geografía* bildumaren 48. zenbakia eta *Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía* 42 zenbakia argitaratu dira, onlineko edizioan, OJS plataformaren bidez kudeatu direlarik.

www.eusko-ikaskuntza.eus/eu/argitalpenak/vasconia-cuadernos-de-historia-geografia-48-on-line/ar-24460/

www.eusko-ikaskuntza.eus/eu/argitalpenak/zainak-cuadernos-de-antropologia-etnografia-42-on-line/ar-24463/



2023ko Memoria

Eusko Ikaskuntzak balantzea egin eta urteko jardueren emaitzak aurkezten ditu 2023ko Memorian. Argitalpen korporatibo horrek Eusko Ikaskuntzaren hiru hizkuntza ofizialetan jasotzen ditu bere edukiak, paperean zein bertsio digitalean.

www.eusko-ikaskuntza.eus/eu/publicaciones/memoria-2023/ar-24458/



Asmoz ta Jakitez

Eusko Ikaskuntzaren informazio-aldizkaria da *Asmoz ta Jakitez*, 1993az geroztik. Hilean behin eta hiru eletan (euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez), hamaika zenbaki argitaratu ditu 2024an (abuztuan izan ezik), eta, horrenbestez, 372. zenbakira iritsi da. Aldizkari guztiak webgunean daude eskuragarri.

www.eusko-ikaskuntza.eus/eu/asmoz-ta-jakitez/2024/



Solasaldiak

Solasaldiak ekimena ikus-entzunezko formatuan egiten da, eta Eusko Ikaskuntzaren jarduera eta lan-arloekin lotutako gaiak jorratu ditu 2024an: *Euskonews* aldizkari digitalaren 25 urteak, adimen artifiziala, Eusko Ikaskuntzaren XIX. Kongresuaren edukiak, GizarteLAB trantsizioen laborategia, bizitza aktiboa 60 urtetik aurrera, eta jasangarritasuna eta belaunaldien arteko elkartasuna. Eusko Ikaskuntza – LABORAL Kutxa sariaren irabazleei eta Lekuona sariaren irabazleei ere eman zaie hitza.

www.eusko-ikaskuntza.eus/eu/solasaldiak/



Euskonews

Gure esparruko zientziari, kulturari eta gizarteari buruzko argitalpen elektronikorik zaharrenak, *Euskonewsek*, beste bost zenbaki argitaratu ditu aurtan. Guztira 786 zenbaki argitaratu ditu, 1998an sortu zenetik.

www.euskonews.eus

Zabalkundea



Auñamendi

2024an, Entziklopediako 207 ahots euskaratu dira, eta horietatik 107 berrikusi eta onartu egin dira. Frantsesera eta ingelesera, berriz, 208 artikulua itzuli dira.

Era berean, 468 artikulua berri sartu dira bazkideen eta kolaboratzaileen ekarpenei esker.

Horren emaitzaz, Auñamendik 145.450 ahots edo artikulua eskaintzen ditu gaur egun euskal kulturarekin eta gizartearekin lotutako askotariko jakintza-arloei buruz.

aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/



Web-orriak

4.502.685
orrialde



Podcast

2023an sortutako podcast kanalean, 1998. urtetik ekoiztutako irrati emanaldien saioak bildu ziren. 2024an, eduki interesagriez osatzen jarraitu da, Dagoeneko 478 sarrera ditu kanalak, horietatik 33 berri direlarik.

www.ivoox.com/eusko%20ikaskuntza_sb.html



Eusko Ikaskuntza eta hedabideak

Hitzarmenak

Ekitaldi honetan bi lankidetzeta-hitzarmen sinatu dira bi hedabide-talderekin: Tokikom eta Goiena.

Tokikom euskarazko tokiko hedabideen sarea da, euskarri guztietako 78 komunikabidek osatua. Sinatutako hitzarmena lagungarria izango da Eusko Ikaskuntzak hizkuntzaren, kulturaren eta ezagutzaren inguruan egiten duen lana gizarteratzeko. Goiena Komunikazio Taldeak, berriz, bost hedabide kudeatzen ditu Debagoiena eskualdean, euskarri guztiak landuta: idatzia, ikus-entzunezkoa, irratia eta webgunea. Haiekin elkarlanean arituko gara elkarren intereseko edukiak zabaltzeko.





Hedabideetan izandako oihartzuna

Iaz, **44** irratsaio sustatu zituen Eusko Ikaskuntzak euskal irrati publikoko bi kateetan. Euskadi Irratiko «Amarauna» saioan, uda bitarte hilean behin aurkeztu ditu Eusko Ikaskuntzak bere ikerketa-lanak, sariak eta jardunaldiak, Irati Azkue kazetariaren eskutik.

Radio Euskadin, berriz, **35** saio egin ditu, txandaka: aste batean, «Kultura.eus» arratsaldeko saioan; hurrengoan, berriz, «La mecánica del caracol» programan, Juan Agirre Sorondo bazkideak gidatuta. Kasu guztietan, Eusko Ikaskuntzaren barne-lana sustatzea dute helburu irratsaio horiek, bai eta erakundeko kideen ikerketa-, dibulgazio- eta irakaskuntza-jarduera plazaratzea ere.

1.288
inpaktu



Sare sozialetako inpaktua eta jarraitzaileak

Eusko Ikaskuntzak **16.533** jarraitzaile ditu sare sozialetan



1.277
eduki partekatua



@Euskolikaskuntza@mastodon.social

euskoikaskuntza
flickr
27

eusko-ikaskuntza
in
814

Eusko Ikaskuntza-
Sociedad de
Estudios Vascos
8.974

@euskoikaskuntza.bsky.social

@ei_sev
3.459

eusko_ikaskuntza
1.271

You
euskomedia
1.502

Bluesky
432

ERAKUNDEA

Kontseilu Errektorea

Kontseilu Errektorea da Eusko Ikaskuntzaren Gobernu eta Zuzendaritza Estrategikoko Organoa.

Lehendakaritza: Ana Urkiza.

Lehendakaritzaordetzak: Asier Etxenike (Araba), Zelai Nikolas (Bizkaia), José Manuel Bujanda (Gipuzkoa), Isabel Elizalde (Nafarroa) eta Iban Larrandaburu (Ipar Euskal Herria).

Kideak: Izaskun Iriarte (Araba), Mario Zubiaga (Bizkaia), Rikardo Bueno (Gipuzkoa), Anika Lujan (Nafarroa) eta Maitena Urmeneta (Ipar Euskal Herria).

Idazkaritza Nagusia eta Diruzaintza: Iñaki Zabaleta.

Lantalde profesionalaren ordezkaria: Leire Gaceo.

Zuzendaritza orokorra: Arantza Cuesta.

Erakunde sortzaileen ordezkariak: Joseba Koldo Pérez de Heredia (Arabako Foru Aldundia), Begoña de Ibarra (Bizkaiko Foru Aldundia), Iosu Arraiz (Gipuzkoako Foru Aldundia), Javier Arakama (Nafarroako Gobernu) eta Antton Curutcharry (Euskal Hirigune Elkargoa).

2024an, Kontseilu Errektorean ordezkaturako pertsonak honako hauek izan ziren: Manu Olariaga (Gipuzkoa). Lexuri Ugarte (Erakunde sortzaileen ordezkaria: Arabako Foru Aldunditik)

Ipar Euskal Herriko Kontseilua

Lehendakaritza: Claude Mehats.

Lehendakariordetza: Viviane Delpéch eta Anne-Marie Galé.

Idazkaritza: Jean-Marie Izquierdo.

Idazkaritzaordetza: Eloise Durand.

Kideak: Virgil Joseph-Alexandre, Iban Larrandaburu, André Péés, Aitzol Salaberria eta Maitena Urmeneta.

2024an, ordezkaturako pertsonak honako hauek izan ziren: Xalbat Alzugaray (diruzaina), Alaia Cachenaute, Argitxu Etchandy eta Antton Maya.

Lantalde profesionala

Olatz Agirre, Beatriz Akizu, Idoia Alberro, Iker Atxa, Joseba Bergaretxe, Arantza Cuesta, Miren Etxabe, Josune Etxaniz, Leire Gaceo, Jaione Irureta, Koro Muro, Amaia Nausia eta Eva Nieto.

Ipar Euskal Herria: Oihana Zamponi.

Batzarrak

Batzar Nagusia

Eusko Ikaskuntzak ekainaren 8an egin zuen urteko Batzar Nagusia, Donostian, online konexioarekin.

Arantza Cuesta zuzendari nagusiak Kudeaketa Planaren xehetasunak eman zituen, eta Ana Urkiza lehendakariak, berriz, azken ekitaldiaren analisia egin zuen, eta jarduera eta lan-ildo nagusiak aurkeztu. Saioan zehar, ikerketa-programen arduradunek labur-labur azaldu zituzten helburuak eta zein egoeratan zeuden.

Aztergaien zerrendan aipagarria izan zen Eusko Ikaskuntzaren XIX. Kongresuaren programari, edukiei eta antolakuntzari buruzko puntua, eta horren guztiaren xehetasunak eman zituen Patxi Juaristi kongresuko lehendakariak.

Batzarra eta hautaketa

Lau urteko agintaldia amaitu ondoren, bazkideei dei egin zitzaien azaroaren 30ean Donostian elkartzeko eta lehendakaria eta Kontseilu Errektorera Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako lau ordezkari hautatzeko.

Ana Urkiza lehendakaria 2024-2028 aldirako aurkeztu zen berriro, lau ardatz estrategikoren inguruan egituratutako programarekin: *Bazkideak, Proiektuak eta agenda, Komunikazioa eta erreferentzialtasuna, eta Finantzaketa*. Eta zeharkako hiru lan-ildo lagungarriekin: *Lantaldea, Aliantzak eta Lurraldetasuna*.

Kontseilu Errektorera bigarren agintaldirako hautagai gisa aurkeztu ziren Asier Etxenike Ugarte (Araba), Zelai Nikolas Ezkurdia (Bizkaia) eta Isabel Elizalde Arretxe (Nafarroa). Rikardo Bueno Zabalo, berriz, lehen aldiz aurkeztu zen Kontseilu Errektorera, Gipuzkoako ordezkari gisa.

Bost hautagaiek jaso zuten Batzarraren babesa.

Ipar Euskal Herriko Batzar Nagusia


Ekainaren 29an, Baionan, Ipar Euskal Herriko Eusko Ikaskuntzaren Batzar Nagusiak ekitaldiaren balantzea egin zuen, zeinetan 26 ekitaldi antolatu ziren. Ohiko jardueraz gain, 2024an kultura transmititzeko programa bat bultzatu zen Urruñan, ondoren lurralde osoko ikastoletan ezartzeko saiakera gisa. 2024-2025 biurtekorako proiektu berriak ere aurkeztu ziren.



Erakundea

Bazkideak

Lurraldeka



Sexua



Bazkide mota



2024an utzi gaituzten bazkideak:

José Antonio Ardanza Garro, Jesús Arin Bereciartua, María Luisa Azurmendi Larrea, Jesús María Azurza Ayerbe, Josu Bascaran Bereciartu, José Manuel Castells Arteche, Jon Gergori Irazabal Agirre, Antxon Lafont Mendizabal, José Miguel Larrañaga Bajineta, Vicente Larrea Gayarre, Roberto López de Etxezarreta Murgiondo, Manuel Sagastume Arregi, Francisco Javier Sánchez-Guardamino Senante, Xabier Ugarte Ayastuy eta Patrizio Urkizu Sarasua.

José Manuel Castells, Gipuzkoako lehendakariordea (1993-1995), Zuzenbide Saileko lehendakaria (1995-2002), eta lehendakaritzaren albokoa (2002-2005).

Patri Urkizu, Hizkuntza eta Literatura Saileko lehendakaria (1995-2002).

Bazkide bilera informatiboak

Apirilean eta maiatzean, informazio-bilerak egin ziren lehendakariarekin eta lurraldeetako lehendakariordeekin. Bilera horietan, Eusko Ikaskuntzako abian duen lanaren eta dituen proiektuen berri eman zen, eta, aldi berean, bazkideen ekarpenak eta iritziak jaso ziren.

Hauek izan ziren aurrez aurreko hitzorduak: apirilaren 17an, Gasteizen; handik zazpi egunera, Iruñean; apirilaren 30ean, Bilbon, eta maiatzaren 6an, Donostian. Azkenik, kanpoan bizi zirenentzat eta aurreko deialdietara joaterik izan ez zutenentzat, onlineko topaketa bat egin zen, maiatzaren 22an.



Omenaldia J.M. Larrasqueti eta J. Salaberriari

Baionako harresien eta Montaut plazaren artean dagoen plaza txiki batek izen hauek ditu orain: Jean-Michel Larrasquet, 2018an zendu zen unibertsitateko irakasle eta Ipar Euskal Herriko Eusko Ikaskuntzako lehendakaria, eta Jasone Salaberria, 2021ean zendu zen irakasle eta hizkuntza-ikertzailea. Izendapen berria Mintzalasai Jaialdiaren programaren barruan inauguratu zen, irailaren 20an; ekitaldian bertsoak izan ziren Jean-Louis Lakaren eskutik, ohorezko aureskua Oihana Beteluren eskutik eta Jean-Michelen anaia Jean-Claude Larrasquetek hitz batzuk esan zituen eskerrak emateko. Txintxila abesbatzak eman zion amaiera omenaldiari.





Egoitza berria Donostian

Urriaren 22an, Eusko Ikaskuntzak bulego berriak inauguratu zituen Donostiako Bergara kaleko 19. zenbakian. Bertan izan ziren Ana Urkiza lehendakaria, Eneko Goia alkatea, besteak beste, Eusko Ikaskuntzako Kontseilu Errektoreko ordezkariak, erakunde sortzaileetako ordezkariak eta Eusko Ikaskuntzako lehendakari ohi Javier Retegi eta Iñaki Dorronsoro.

Egoitza berriak aldaketa esanguratsua dakarrela azpimarratu zuen lehendakariak: modernoa, publikoari irekia, eta elkarlana eta topaketa erraztera bideratua. Espazio propioa izatea erakundearen aspaldiko nahia zela ere azpimarratu zuen.

Goia alkateak Eusko Ikaskuntza hiriaren erdigunean izatearen garrantzia azpimarratu zuen, ezagutza eta pentsamendurako funtsezko erakunde gisa deskribatuz. Aste horretan bertan, ate irekien jardunaldiak antolatu ziren, parte-hartzaileek gune berria ezagutzeko aukera izan zezaten.

II. Berdintasun Plana

2023an jarri zen martxan Berdintasunerako II. Plana (2023-2026). Bigarren plan honen helburu estrategikoez eragina dute bai erakundearen barne bizitzan bai Eusko Ikaskuntzaren kanpo proiektzioan. 2024an proiektuetan genero ikuspegi txertatzeko lan egin zen, baita erabakiak hartzerakoan eta proiektuak gauzatzekoan ikuspegi feminista izateko ere. Hala nabarmendu zen Eusko Ikaskuntzaren XIX. Kongresuan, non ponentzia nagusiak emakumeek egin zituzten.



Hitzarmena Nafarroako Gobernuarekin

Ana Ollo Nafarroako Gobernuko bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako sailburuak eta Ana Urkiza Eusko Ikaskuntzako lehendakariak ekainaren 11n berri zuten bi erakundeen arteko lankidetzaren hitzarmena.

Hitzarmen horri esker, jarduera-plan bat garatu da diziplina anitzeko erakunde zientifiko horren eta Euskarabidearen artean. Alde batetik, Nafarroa hizkuntza-aniztasuneko lurraldea izanik, bertako herritarrek euskararen sustapenaren inguruan partekatzen dituzten balioak identifikatu eta aztertu dira. Eta, bestetik, XXI. mendeko herritarren askotariko identitate kohesionatu, integratzaile eta berriak eraikitze oinarriak aztertu dira. Azterketa horien emaitzak Eusko Ikaskuntzaren XIX. Kongresuarekin batera aurkeztu ziren.

Europako Parlamentuan aurkeztea

Europar Batasunean autodeterminazio-prozesuak garatzeko araudi-proposamena aurkeztu zuten urtarrilaren 31n, Europako Parlamentuan, EHUko ikertzaile Maite Zelaia bazkideak, Eusko Ikaskuntzako Kontseilu Errektoreko kide Mario Zubiagak eta Zelai Nikolasek, Edinburgoko Zuzenbide Konstituzionaleko Zentroko zuzendari elkartu Elisenda Casanasekin eta Pompeu Fabra Unibertsitateko irakasle Marc Sanjaume-Calvetekin batera.

Saioaren bigarren zatian, Iñigo Urkullu lehendakariak, Pere Aragones Kataluniako presidentek eta Gilles Simeoni Korsikako Kontseilu Exekutiboko presidentek hartu zuten hitza, eta ontzat eman zuten proposamena.

Korrika 2024

Eusko Ikaskuntzak bere lurralde-arduradun nagusien bitartez hartu zuen parte 2024ko Korrikaren jai-aurkezpenetan, otsailaren 29an, Iruñean, eta martxoaren 6an, Bilbon.

2022an gertatu zen bezala, Korrika Kulturalaren barruan hainbat ekitaldi antolatu ziren Baionako Euskal Museoan, martxoaren 21ean: «Frankoren menpe kantatzen» liburua aurkeztu zen eta «Ahots Hariak» dokumentala eman.

Gainera, Eusko Ikaskuntzak kilometro batzuk erosi zituen martxoaren 23an —larunbatez— Donostian eta hurrengo egunean, Baionan, kasu horretan Oreka elkartearekin batera.





Euskararen Nazioarteko Eguna, ENE 75 urte

Azaroaren 26an Euskararen Nazioarteko Egunaren 75. urteurrena ospatu zen Baionako udaletxean. Eusko Ikaskuntzaren 1948ko VII. Kongresutik aurrera ospatzen da Euskararen Eguna.

Claude Mehats Eusko Ikaskuntzako lurralde-lehendakariak aurkezpena egin ondoren, ekitaldi instituzionalean parte hartu zuten Jean-René Etchegaray Baionako alkate eta Euskal Hirigune Elkargoko lehendakariak, Ana Ollo Nafarroako Gobernuako bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako sailburuak, eta Aitor Aldasoro Iturbe Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak; haiek sinatu zuten *75. urteurrenaren adierazpena*, Ana Urkiza Eusko Ikaskuntzako lehendakariak irakurri zuena.

Ondoren, mahai-inguru bat egin zen «Nola trinkotu eta saretu euskal hiztunen komunitatea» gaiaren inguruan, euskalgintzako hainbat eragilek parte hartu zutelarik.

Xalbat Alzugarayk (Eusko Ikaskuntza) moderatuta, Xan Aire (Plazara), Jasone Mendizabal (Euskaltzaleen Topagunea), Idurre Eskisabel (Euskalgintzaren Kontseilua), Peio Jorajuria (Seaska) eta Ihintz Oliden (AEK) bezalako erreferenteek parte hartu zuten eztabaidan euskararen biziberritzean betetzen duten eginkizunaz duten esperientzia eta ikuspegia partekatu zutenak.

Mahai-inguruan gai erabakigarriak jorratu ziren, hala nola, euskal hiztunen komunitatea sendotzeko egungo erronkak, euskararen ezagutzaren unibertsalizazioa, hizkuntza eskubideak bermatzeko beharra, eta euskara kohesio sozialerako eta elkarbizitzarako bidea izatearen garrantzia, edozein instrumentalizaziotik urrun. Euskararen indartze prozesu kolektibo honetan instituzioek eta gizarteak duten erantzukizun partekatuz ohartaraztea izan zen puntu nabarmenetako bat.

Bertaratutakoek ekarpenekin aberastutako topaketa, gure hizkuntzaren etorkizunarekiko entzute, gogoeta eta konpromisorako gune zirrargarria izan zen.

Erakundeak

Eusko Ikaskuntza beste erakundeetan

Arantzazuko Gizarte Berrikuntza Laborategia
Arizmendiarrietaren Lagunak Elkartea
Bilboko Udala
Bilbao Metropoli 30
Campus Iberus
Euskal Irrati Telebista
Trantsizio Soziala eta 2030 Agendaren Eragile Anitzeko Foroa
Etxepare Euskal Institutua
Eurobask, Europako Mugimeduaren Euskal Kontseilua
Euskaltzaindia
Euskararen Nafar Kontseilua
Gipuzkoako Foru Aldundiko Elkarleen Foroa
Innobasque. Berrikuntzaren Euskal Agentzia
Iparraldeko Garapen Kontseilua
Jakiunde. Zientzia, Arte eta Letren Akademia
Kontseilua, Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua
Ongizateko gizarte-berrikuntzako eragileen foroa
OGP, Open Government partnership Euskadi
Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea
Soziolinguistika Klusterra
UNEtxea

Elkarlan eta elkarriketa estuan

AEK
Altube Elkartea
Altsasuko Udala
Ataungo Udala
Arabako Foru Aldundia
Arantzazu-lab
Baionako Udala
Bilboko Udala
Bizkaiko Foru Aldundia
Berria
Conexiones Improbables
Dantzerti
Deustuko Unibertsitatea
Donostiako Udala
EH Batera
El Correo
El Diario Vasco
Elhuyar
Eresbil
Etxepare Euskal Institutua
EUNEIZ
Euskadiko Gazte Kontseilua
Euskal Herriko Unibertsitatea
Euskal Kultur Elkartea
Euskal Irrati Telebista
Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea
Euskalgintzaren Kontseilua
Euskaltzaindia
Euskaltzaleen Topagunea
EuskarAbentura
Euskarabidea
Eusko Jaurlaritza
Gaindegia
Gara
Gasteizko Udala
Gerediaga Elkartea
Gipuzkoako Foru Aldundia
Gobernuaren Ordezkaritza Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan
Goiena
Gure Esku

Hirigune Elkargoa
Innobasque
Iruñako Udala
Jakín
Jakiunde
Korrika
Kutxa Fundazioa
LABORAL Kutxa
Mondragon Unibertsitatea
Musikene
Nafarroako Foru Komunitatea
Nafarroako Ikastolen Elkartea
Nafarroako Unibertsitate Publikoa
Nafarroako Unibertsitatea
Noticias Taldea
Oñatiko Udala
Sabino Arana Fundazioa
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne
Soziolinguistikako Klusterra
Talaia Feminista
Tokikom
Udako Euskal Unibertsitatea
ULMA Taldea
UNED
UNEtxea
Université de Pau et des Pays de l'Adour
Vital Fundazioa
Zornotzako Udala
Zumarragako Udala
Zuzenbide Kolaboratiboko Euskadiko Elkartea

Aipatutakoen gain, beste Euskal Herriko hainbat udalerrri, erakunde, eragile eta pertsonekin harreman estuan gara urtean zehar, lankidetzak, proiektuak ta ekarpenak partekatzen.



Fundazioak

Jose Miguel de Barandiaran

Ikerketa sustatzea da Jose Miguel de Barandiaran Fundazioaren helburuetako bat eta baita lan lerro nagusienetako bat ere. Hala, 2024ean Barandiaran Ikerketa Beka Leticia Tobalina arkeologoak zuzendutako lantaldeari eman zitzaion, 'Antzinateko kobazuloen maiztasunari buruzko diziplinarteko azterketa (K.o. I. mendetik VII.era) Euskal Herrian' proiektuagatik.

Argitalpeni dagokienez, Fundazioak Eusko Folklore Urtekariaren 58. zenbakia ekoiztu du. Azken urteetako joerari eutsiz gai baten inguruko lanak nagusitu dira eta zenbaki berri honetan 'Auzolana' izan dute aztergai bost adituk; horrez gainera, ekarpen libreak ere irakur daitezke urtekarian, tartean, 2023ko Barandiaran Bekaren laburpena.

Gainera, Fundazioak azken urteetan Barandiaranen etxea izandakoa jendeari gerturatzea izan du xede eta hala, hainbat bisitaldi egin dira Ataungo Sara Etxera: Ataungo eskolatik, Dimako Zamakola Elkartetik, Barandiaran Museotik (haiek antolatutako bisita gidatuak direla eta); Jentilbaratza Kultur Elkartearen ekimenez egiten den Gau Ibilaldi Mitologikoa ahaztu gabe.

Bestalde, EHUko Joxemiel Barandiaran Katedrarekin elkarlanean Euskal Herriko hainbat ikastetxetan Barandiaranen irudia zabaltzeko saio didaktikoak egin ziren.

www.barandiaranfundazioa.eus

Asmoz Fundazioa

ASMOZek ezagutzaren transmisioa bideratu, erraztu eta sustatzen du aurrez aurre zein euskarri digitalen bidez, bazkideztan, proiektuak sortu, garatu eta prestakuntza eskainiz. Gure helburua gizarteak dituen erronka nagusiei erantzuten laguntzea da, horretarako, berrikuntza metodologikoa eta gizarte-berrikuntza biltzen dituen ekimen desberdinak bultzatu ditugu, jakintza arlo desberdinetan:

YOGO4LIFE. Hiritar zientzia ekimen honetan, emakume talde batek A2A2 proteinadun jogurt bat egunero hartzeak bere gluzemia-indizeetan duen intzidentzia, biosentsore baten bidez erregistratu eta aztertu da.

BERTSOHACKATHOIA. Gure kultur tradizio aberatsa bizirik eta eguneratuta mantentzeko asmoarekin, teknologia erabiliz, bertsolaritza berritzeko erronkari heldu dio ekimenak.

EIMA DIGITALA. Unibertsitateaz kanpoko irakasmailetan erabiltzekoak diren ikasmaterialek -euskarazkoak eta kalitatezkoak- sortu eta editatu dira, hiru jakintza-arloetan: Elikadura osasungarria, Gauzen Interneta eta Musika.

ARRETA SOZIOSANITARIOAN TREBAKUNTZA. Proiektu honen bitartez, parte-hartzaileek erakundearen eta etxeko arreta soziosanitarioko ziurtagiriak lor ditzaten, prestakuntza-orientazioko on line zerbitzua abiarazten lagundu da.

www.asmoz.eus

DATU EKONOMIKOAK

Egoeraren balantzeak 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n


AKTIBOA	2024.12.31	2023.12.31	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2024.12.31	2023.12.31
AKTIBO EZ ARRUNTA	1.341.468	1.008.758	ONDARE GARBIA	1.426.847	770.226
I. Ibilgetu ukiezina	335	867	1. Fondo propioak	770.788	770.226
			I. Fondo Soziala	310.859	310.859
II. Ibilgetu materiala	1.313.313	980.071	II. Erreserbak	476.226	476.226
			III. Aurreko ekitaldietako soberakinak	- 16.859	67
III. Epe luzeko finantza inbertsioak	27.820	27.820	IV. Ekitaldiko soberakina	562	- 16.926
			2. Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	656.059	-
			PASIBO EZ ARRUNTA	282.930	994.051
			I. Epe luzeko zorrak	282.930	994.051
AKTIBO ARRUNTA	778.870	1.140.097	PASIBO ARRUNTA	410.561	384.578
I. Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak	394.230	497.494	I. Epe laburreko zorrak	71.130	15.826
II. Epe laburreko finantza inbertsioak	1.000	1.000	II. Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak	102.171	95.536
III. Epe laburreko periodifikatzeak	1.084	1.068	III. Epe laburreko periodifikatzeak	237.260	273.216
IV. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	382.556	640.535			
AKTIBOA GUZTIRA	2.120.338	2.148.855	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	2.120.338	2.148.855

Aurreko urteetan bezala, Eusko Ikaskuntzaren urteko kontuak LKS AUDITORES, S.L.P. (ROAC nº 1054) enpresak ikuskatu ditu


Emitza kontuak 2022, 2023 eta 2024ko abenduaren 31n

	2022.12.31	2023.12.31	2024.12.31
DIRU SARRERAK			
Administrazio Publikoak	937.747	856.064	1.004.981
Bazkideak	109.624	108.643	109.244
Beste Sarrerak	80.641	70.199	100.770
GUZTIRA SARRERAK	1.128.012	1.034.906	1.214.995
GASTUAK			
Pertsonen gastuak	649.246	643.102	658.191
Erosketak eta Azpikontratazioa	431.565	355.795	486.289
Amortizazioak	30.562	28.202	33.592
Ezohizkoak eta Beste	16.572	24.733	36.361
GUZTIRA GASTUAK	1.127.945	1.051.832	1.214.433
MARJINA	67	- 16.926	562

Datu ekonomikoak 2022-2025



Bataz besteko lantaldea 2022-2025





ei-sev@eusko-ikaskuntza.eus www.eusko-ikaskuntza.eus

**Bulego Nagusiak / Oficinas Generales /
Siège Principal**

Bergara, 19
20005 – DONOSTIA
Tel. +34 943 31 08 55

Araba

Pedro Asua, 2 - 2º
01008 – GASTEIZ
Tel. +34 945 23 15 52

Bizkaia

Uribitarte pasalekua, 10
48001 – BILBO
Tel. +34 944 42 52 87

Nafarroa

Gaztelu plaza, 43 bis, 4º D
31001 - IRUÑEA
Tel. +34 948 22 21 05

Ipar Euskal Herria

51, quai Jauréguiberry
64100 - BAIONA
Tel. +33 559 59 82 90

Asmoz Fundazioa

Asteasuain, 14 (Pol. Txikiardi)
20170 – USURBIL
Tel. +34 943 21 23 69
E-posta: asmoz@asmoz.org | www.asmoz.org

Jose Miguel de Barandiaran Fundazioa

Sara Etxea. Murkondo auzoa, 4
20211 – ATAUN
E-posta: gasteiz@barandiaranfundazioa.eus
www.barandiaranfundazioa.eus



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez